

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Florentzia Azpiroz Nazabal

*Berastegi,
Gipuzkoa
(1924-2017)*

Aurkibidea



Biografia



Aitzunalde auzoko Antsone baserrian jaio zen, baina lau urtetik 12ra bitartean kalean bizi izan zen osaba-izebekin. Gurasoak biak Berastegikoak zituen. Sei urte ingururekin hasi zen eskolan eta 12 urtera arte ibili zen plazako eskolan. Gerra hasi zenean Antsone baserrira itzuli zen. 22 urterekin Eguzkialde auzoko Osiñeta baserrira ezkondu zen eta bertan bizi izan da ordutik.

Zintak

BRS-031

- **Proiektua:** Berastegiko ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Agirrebeña, Aintzane
- **Data:** 2009-06-20
- **Iraupena:** 60 min
- **Euskarria:** MiniDV
- **Kodifikatzailea:** Etxeberria, Eider
- **Transkribatzailea(k):** Elexpuru, Juan Martin

Pasarteak

1. Bikia bizi zeneko garaia

- **Erref:** BRS-031/002
- **Iraupena:** 0:01:39. **Hasi:** 00:01:01. **Bukatu:** 00:02:40
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:

Florentzia umetan oso iharra zen, eta bere biki-laguna mardula. Bikia, ordea, hil egin zen umetan.

2. Umea izatean, hilzorian

- **Erref:** BRS-031/004
- **Iraupena:** 0:02:28. **Hasi:** 00:03:13. **Bukatu:** 00:05:41
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Medikuak eta sasimedikuak
- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Osasun-zentroak
- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Jaiotzak

Laburpena:

Lehen umeak etxean izaten ziren normalean. Don Juanek laguntzen zuen umeak erditzeko garaian. Florentziak bere azken umea Donostiako ospitalean eduki zuen, eta odolustuta hiltzeko zorian egon zen. Izandako erditze bakar batean ere ez zioten eman injeziorik.

3. Gerra bukatu arte kaleko etxean bizitzen

- **Erref:** BRS-031/006
- **Iraupena:** 0:02:57. **Hasi:** 00:06:57. **Bukatu:** 00:09:54
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserrria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Baserrria vs. Kalea

Laburpena:

Umea zela, ganadua izaten zuten etxean eta ardiak mendian. 12 urte izan zituen arte kalean bizi izan zen, eta gerra amaitutakoan baserrira itzuli zen. Kalera zergatik joan zen bizitzera kontatzen du, eta han zer-nolako bizimodua izan zuen.

4. Eskolako maistra eta zigorrak

- **Erref:** BRS-031/007
- **Iraupena:** 0:02:06. **Hasi:** 00:09:54. **Bukatu:** 00:12:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Zigorrak

Laburpena:

<p>Kalean bizi zela, eskolara joateko aukera ona izan zuen. Eskolako maistrari buruz hitz egiten du. Klaseak gaztelaniaz izaten ziren, baina ez zieten debekatzen euskaraz hitz egitea. Zer-nolako zigorrak izaten zituzten kontatzen du.</p>

5. Eskolan ikasten zutena

- **Erref:** BRS-031/008
- **Iraupena:** 0:01:50. **Hasi:** 00:12:00. **Bukatu:** 00:13:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Ikasgaiak eta ikasmateriala

Laburpena:

<p>Eskolan aritmetika ikastea gustatzen zitzaion. Zer gai ikasten zituzten azaltzen du. Gai bakoitzerako liburu txiki bat edukitzen zuten.</p>

6. Eskolako ordutegiak eta laboreak

- **Erref:** BRS-031/009
- **Iraupena:** 0:01:56. **Hasi:** 00:13:50. **Bukatu:** 00:15:46
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak

Laburpena:

Eskolara goiz eta arratsaldean joaten ziren. Laboreak ere ikasten zituzten orduan. Jolas-ordurik ez zuten izaten, baina bestela ere jolasten zuten.

7. Umetako jolasak nolakoak ziren

- **Erref:** BRS-031/010
- **Iraupena:** 0:01:37. **Hasi:** 00:15:46. **Bukatu:** 00:17:23
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak

Laburpena:

Zer jolasetan ibiltzen ziren eta jolasak nola izaten ziren azaltzen du.

8. Desberdintasunak aberatsen eta pobreen jolasen artean

- **Erref:** BRS-031/012
- **Iraupena:** 0:01:43. **Hasi:** 00:18:36. **Bukatu:** 00:20:19
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Eliza giroko ospakizunak

Laburpena:

Kaniketan ere jolasten zuten, eta nola izaten zen jolasa azaltzen du. Panpinak bazeuden, baina aberatsek bakarrik zituzten. Erregetan ez zuten oparirik jasotzen normalean, familia aberatsetan bakarrik.

Transkripzioa

-Kaniketan esan dezu. Kanikak erosi egiten zien?
-Bai. Ta geo paretan baztarren hola jo, gelditzen zien tokin. Geo beste kontrarioak joko zun eta hari hola harrapatzen baldin bazun, harena kanike. Ez baldin bazun...
-Eta bestela muñekarik edo bazan?
-Bai, baiña guk ez.
-Geroago igual.
-Ez, ez. Ordun Kakonekoak eta hemen aberats-jendek bazittuen, Martentonionen eta. Bazien muñekak eta kuzinak eta, Erregetan berebiziko pesta ibiltzen gendun. Maistrak esaten zigun: "Qué os ha traido los Reyes?", eta "nada. Si son mentira". Bestek, berriz, denak hemen haundi xamarrek zerenok esan itten zittuen. Nik kasualidadez ondoan neuzken eta haikin jostatzen nitzen, aillegatu nitzen holako trasteekin

jostatzea, baiño lagunetak. Martentonekoak eta Marijexuk eta. Hola.
-Eta esan dezu Erregenetako kontua. Zuen etxera ez zan ailegatzen ezer.
-Ez, ez. Guretzat ez. Nik muñeka bat izan nun, poxpolin ibilli giñen gu neska-koxkorretan, gerra arte. Ta ordun Manolitak, auzoko lagunak ahizpek ekarri zian.
-Baiña hori zer izaten zan, dantzan pospolin moduan...
-Bai, bai. Kalen eta ibiltzeko.

9. Poxpolin ibili zenekoa

- **Erref:** BRS-031/013
- **Iraupena:** 0:01:46. **Hasi:** 00:20:19. **Bukatu:** 00:22:05
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Dantza

Laburpena:

Poxpolin ibili zenean, herriko emakumeak izaten ziren irakasle. Zer dantza eta abesti ikasten zituzten aipatzen du.

10. Poxpolin-jantzia eta San Juan dantzariak

- **Erref:** BRS-031/014
- **Iraupena:** 0:01:51. **Hasi:** 00:22:05. **Bukatu:** 00:23:56
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa eta oinetakoak
- Aisia » Kultura » Dantza

Laburpena:

Poxpolin-jantzia nolakoa izaten zen deskribatzen du. Neska asko ibiltzen ziren poxpolin. Gerra iritsi zenean, ordea, poxpolin-jantziak erre egin zizkieten etxean. Gerra aurretik San Juan dantzariak ere baziren (mutilen dantza-taldea).

Transkripzioa

-Poxpolin-jantzia nolakoa izaten zan?
-Gorrie, barra berde bat hola zabala, eta goien blusa txurikin zea, gorontza berdea, paiño txurie, alpargatak zintekin, Bai-bai, dena estilo oingora, baiño oain dena gona ta hoik dena diferente ibiltzen dala, hoixe.
-Ta neska asko ibiltzen ziñeten?
-Bai, mordoska giñen gu, mordoska giñen. Bai.
-Zeintzuk ibiltzen ziñaten, akordatzen zara?
-Bai, baiño. Gure ahizpek'e ibiltzen giñen eta. Hemen asko, bai. [...] eta, [...] eta. Martiñenekoak eta. Bai, haundioak giñuzen. Geo Pedro Matxinen alabak eta. Gero haik Ameriketara jun zien eta. Gero gerra denboran soldaduk sartu zienen gauze diferentea zan. Pss!, denak erre zittuen eta.
-Denak zer, erropak eta, arkuak eta?
-Bai, bai, bai, den-denak. Harrapatu zizkiguen guzik, danak.
-Hori izango zan gerra aurretik, ezta?
-Bai, bai. Gero ez.
-Mutil-talderik bazan?

-Bai. "San Juan dantzarik", orduko bazien, bai. Lehen-lehendik datozte gaiñea Berastein zeak. Gue aitten edadekok eta guzik bazien.
-Eske hemen dantza-soka beti egiten zan festetan, ez?
-Bai, bai. Beti eitten da, baiño Tolosan-eta bezela ez da eitten, honek badu puntu bat diferentea hoitatik.

11. "Okerra" soinu-jotzailea

- **Erref:** BRS-031/020
- **Iraupena:** 0:01:05. **Hasi:** 00:32:29. **Bukatu:** 00:33:34
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak
- Aisia » Jai-giroa » Erromeriak

Laburpena:

"Okerra" soinu-jotzaileari buruz hitz egiten du. Hankak okerrak zituen, eta asto gainean ekartzen zuten.

Transkripzioa

-Gero beste soñujole bat, Okerra edo.
-Okerra, bai, hemen Oiñetazarren, hue bai. Bueno, haren beharrak izaten giñun guk, gure soñujotzailea hue zan. Arrunt, hankak-eta oso okerrak zittun. Esango zizuen lehen'e baten batek. Eta oso okerrak zittun, hola bilduk izaten zittun, baiño sana zen. Abildade haundie zun, trikiti jotzen ziun, ta geo astoan gaiñen eamaten zuen. Ta Gorrin edo atarin, Karakonekon [...], han, bakizu, [...] zan lehenao. Haraiño aillegatzen zanen plazaa aterata jartzen giñen gu, bizkarren hartuta exeita jartzen zuen kontsejutik sille ekarrita ta. Haren beharrak izaten giñun.
-Makiña bat dantza-saio egin zendun orduan hark musika jota.
-Bai. Zuzen edo oker bai guk. [...] giñen. Bai.

12. Poxpolinetan txistua eta danborra

- **Erref:** BRS-031/023
- **Iraupena:** 0:01:20. **Hasi:** 00:34:38. **Bukatu:** 00:35:58
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Dantza

Laburpena:

Poxpolinetan ibiltzen zenean, txistua eta danborrarekin egiten zuten dantza. Txistua nork jotzen zuen azaltzen du. Dultzainarekin dantzatzea, ordea, ez zuen ezagutu berak.

13. Mutilen eta nesken arteko desberdintasuna aisialdia bizitzeko garaian

- **Erref:** BRS-031/025
- **Iraupena:** 0:03:00. **Hasi:** 00:36:48. **Bukatu:** 00:39:48
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak
- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren indarra

Laburpena:

<p>Don Andres apaiza oso zorrotza izaten zen bekatu kontuetan. Emakumeek ezin izaten zuten tabernatara sartu. Emakume batzuek galtzak jantzi zituzten, eta apaizak errieta egin zien horregatik pulpitutik. Mutilentzat arauak ez ziren hain zorrotzak izaten; nora joaten ziren aipatzen du Florentziak.</p>

14. Umetan herrian zeuden etxeak

- **Erref:** BRS-031/026
- **Iraupena:** 0:01:34. **Hasi:** 00:39:48. **Bukatu:** 00:41:22
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Merkataritza, dendak (kokapena)
- Baserría » Baserriko bizimodua » Baserriaren historia eta kokalekua

Laburpena:

<p>Lau urte zituenean, osaba-izeben etxera etorri zen kalera bizitzera, eta zer etxe zeuden azaltzen du.</p>

15. Telak jostunei eramaten

- **Erref:** BRS-031/027
- **Iraupena:** 0:00:47. **Hasi:** 00:41:22. **Bukatu:** 00:42:09
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Sastreak, jostunak

Laburpena:

Tela erosi eta jostunengana eramaten zuten. Jostun on batzuk aipatzen ditu. Bera ere ibili zen josten ikasten.

16. Lehengo ezkontzak nolakoak izaten ziren

- **Erref:** BRS-031/028
- **Iraupena:** 0:03:58. **Hasi:** 00:42:09. **Bukatu:** 00:46:07
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ezkontzak

Laburpena:

22 urterekin ezkondu zen. Garai hartan goiz ezkontzen zen jendea. Ezkontzak lehen nolakoak izaten ziren azaltzen du. Berak ez zuen eztei-bidaiarik izan, baina izan zutenak ez ziren urrutira joan. Ezkontzako jantzia beltza izan zuen.

17. Lutoa eta oinetakoak

- **Erref:** BRS-031/029
- **Iraupena:** 0:01:55. **Hasi:** 00:46:07. **Bukatu:** 00:48:02
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa eta oinetakoak

Laburpena:

Luto asko izaten zuten gaztetan. Koloretako arropak tindatu egin behar izaten zituzten, zuten arropa bakarra izan arren. Arropa askoz gutxiago izaten zuten orduan. Nolako oinetakoak izaten zituzten azaltzen du; egoera bakoitzerako oinetako mota bat izaten zuten.

18. Zapata-konpontzaileak Berastegin

- **Erref:** BRS-031/030
- **Iraupena:** 0:00:58. **Hasi:** 00:48:02. **Bukatu:** 00:49:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Industria motak » Zapatagintza

Laburpena:

Herrian zapata-konpontzailea bazegoen, baina ez zapatak egiten zituenik. Gizon haiei buruz hitz egiten du.

19. Berastegiko bizibide eta lanbideak

- **Erref:** BRS-031/031
- **Iraupena:** 0:01:55. **Hasi:** 00:49:00. **Bukatu:** 00:50:55
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak

Laburpena:

Lehen morroi sartzen ziren gazteak sos batzuk irabazteko; baina gerra ostean fabrikatan hasi ziren lanean. Herriko meatzeei buruz hitz egiten du.

20. Urik ez etxean ezkondu eta gero arte ere

- **Erref:** BRS-031/032
- **Iraupena:** 0:01:50. **Hasi:** 00:50:55. **Bukatu:** 00:52:45
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Berrikuntzak » Argindarra eta ura
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko zereginak
- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Garbitasun pertsonala

Laburpena:

Umetan etxean ez zuten urik. Errekako eta iturriko ura ekartzen zuten etxera baldetan. Ezkondu eta gero ere etxean ez zuten urik, eta nola jarri zuten

azaltzen du. Arropa astintzeko iturrira joaten ziren. Garbiketarako xaboiari buruz hitz egiten du.

21. Errazionamenduan nola moldatu ziren

- **Erref:** BRS-031/033
- **Iraupena:** 0:03:07. **Hasi:** 00:52:45. **Bukatu:** 00:55:52
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean

Laburpena:

<p>Gerraostean errazionamendua egoten zen. Dendara joaten ziren tokatzen zitzaien janaria jasotzera. Errazionamenduko ogia, hala ere, ez zuten denek jasotzen eta nola-hala moldatzen ziren hura lortzeko. Beraiek ez zuten goserik pasa, lurrak ematen zien janariarekin nahikoa baitzuten. Lurra lehen garbiagoa eta osasun hobekoa zen. Etxeko janaria entregatu egin behar izaten zuten.</p>

22. Errotak itxita zeudeneko garaia

- **Erref:** BRS-031/034
- **Iraupena:** 0:02:48. **Hasi:** 00:55:52. **Bukatu:** 00:58:40
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean

Laburpena:

Gerra ostean zer errotatara joaten ziren azaltzen du. Errotari batzuei buruz hitz egiten du. Errotak zigilatuta egoten ziren gauez, inork han lanik egin ez zezan.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2026-03-04

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkartea

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com